

UNIBASQ-EN 2013-2016 ALDIRAKO PLAN ESTRATEGIKOAREN BETETZE MAILARI BURUZKO TXOSTENA

Aurkibidea

1. SARRERA	3
2. ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA HELBURUAK	4
3. ONDORIOAK	9

1. SARRERA

Txosten honen helburua Unibasq-en 2013-2016 aldirako Plan Estrategikoaren betetze-maila aztertzea da. Plan horren xedea tresna izatea zen, kalitatea kudeatzeko sistema baten esparruan, Euskal Unibertsitate Sistemaren barruan erakundearen helburuak betetzeko tresna, alderdi interesdunen premiak betetzeko tresna, baita erakundeari datxekion gizarte-erantzukizun korporatiboa behar bezala betetzeko tresna ere.

Izan ere, Plan Estrategikoaren xede nagusia ENQA-n sartzea eta EQAR-en erregistratzea zen eta xede hori betetzeko bideratu ziren egindako jardun guztiak indarrean egon den denboraldian. Aipatutako xedea orain dela gutxi lortuta, plan estrategiko berria egitea behar da aurkitzen garen eszenatoki berriari egokituta egongo dena Europako Goi-mailako Hezkuntza Esparruaren kalitate-estandarrak betetze aldera. Hori dela eta, oraingo plana 2015eko abenduan ixten da.

Txostenean, ardatz estrategikoak eta horiekin loturiko helburuak aztertuko ditugu, baita helburuen betetze-maila ere, baina ez ditugu berriazko jardunak aztertuko.

2. ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA HELBURUAK

Unibasq-en 2013-2016 aldirako Plan Estrategikoa sei ardatz estrategikotan oinarritzen da eta ardatz horiek berariazko helburuen bitartez garatu dira. Jarraian, ardatzak, helburuak eta horien betetze-maila orokorra azalduko ditugu:

1. ardatza: Zuzentzea eta antolatzea

- 1.1. *helburua: Baliabideen erabilera eraginkorra ziurtatzea.*
- 1.2. *helburua: Informazioaren segurtasuna bermatzea.*
- 1.3. *helburua: Datuak babesteari buruzko Legea aplikatzea.*
- 1.4. *helburua: Barne-antolamendua hobetzea.*
- 1.5. *helburua: Kalitatea bermatzeko barne-sistema ezartzea.*
- 1.6. *helburua: Arriskuen kudeaketako eta barne-kontrolako eginkizuna ezartzea.*
- 1.7. *helburua: Agentziaren jardueraren onespina lortzea, nazioarteko estandarrei jarraiki.*
- 1.8. *helburua: Autonomia eta independentzia indartzea erakundearen funtzionamenduan, indarreko lege-esparrua oinarritzat hartuta.*
- 1.9. *helburua: Agentziaren baitan eta unibertsitateekin eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean, erakunde-ebaluazioko eta prospektibako ebaluazio-programa berrien inguruko hausnarketa sustatzea.*

“Zuzentzea eta antolatzea” ardatz estrategikoan Agentziaren barne-antolamenduarekin eta nazioarteko estandarrei jarraiki bere jardueraren onespenearekin loturiko helburuak biltzen dira. Lehenengo helburuan aurreikusitako jardun gehienak planaren indarreko lehenengo bi urteetan bete dira, beharrezkoa zenean erabilgarri zeuden baliabideen mantentze-lanak aztertuz eta hornikuntza informatikoa berrituz. Bigarren helburua Agentziaren programetako espedienteen artxiboaren antolaketa hobekuntza moduan gauzatu da, fitxategien serbidorea berrituz eta Docuware dokumentu-kudeatzailea progresiboki ezarriz. Datuak babesteari buruzko Legea aplikatzeari dagokionez, Datuak babesteko Euskal bulegoak emandako formakuntza ikastaroaren plangintza egin zen. Ikastaroa bi saiotan burutu zen 2014an. Horrez gain, gai honekin lotuta Unibasq-en egoerari buruzko diagnostikoa egin zen, epe ertainean aztertuko dena. Laugarren eta bosgarren helburuak kalitateari buruzko eskuliburuaren eta bere atxikitako prozeduren lantzean ikus daitezke, nahiz eta oraindik ISO 9001 ziurtagiria ez lortu eta aldeko eta aurkako aldeak aztertu ondoren, Agentziarentzat are interesgarriago izan daitekeela EFQM ereduari kalitate sistema egokitzea erabaki da, 2016-2019 Plan Estrategiko berriaren proposamenean helburu bezala sartu dena. Seigarren helburuari dagokionez, Unibasq-ek urtean behin egiten diren Arriskuen kudeaketako eta barne-kontrolako ebaluazioetarako formularioak betetzen jarraitu du eta 2014an Eusko Jaurlaritzak Barne-kontrolari buruz egindako auditoretza gainditu du.

1.7 helburuak ahalegin gehiena ekarri duena izan da 2013an eta 2014an. 2013an zehar ENQA-ren kide oso izateko aurkeztu behar zen auto-ebaluazio txostena egin zen. 2014ko otsailean adituen panelaren bisita izan ondoren, eta Goi-mailako Hezkuntzaren Europar Esparruan Kalitatea Bermatzeko Irizpideak eta Jarraibideak (ESG) betetzen genuela onetsi ondoren, Unibasq ENQA-ren kide osoko moduan onartua izan da 2014ko irailean, eta EQAR erregistroan sartu izan gara 2014ko azaroaren bukaeran. Modu honetan indarrean dagoen araudian arabera titulu ofizialen egiaztatzeko eta aldatzeko ebaluazioak egiteko eskumena lortuz.

Zortzigarren helburua Etika batzordearen finkatzean sustatu da, oraindik egiteke dagoena Eusko Jaurlaritzarekin izenpetu behar den kontratu-programa da, 2015eko abenduaren 18ko Unibasq-eko Gobernu Kontseiluan onartzea aurreikusten dena.

Bukatzeko, bederatzigarren helburua garatzeke dago, bai Eusko Jaurlaritzarekin bai unibertsitateekin egindako bilerez aparte, hurrengo Plan Estrategikora eramanez.

○ **2. ardatza: Pertsonak**

2.1. helburua: Agentziaren prestakuntza-politika garatzea.

2.2. helburua: Langileen garapen profesionala erraztea.

2.3. helburua: Barne-kontrola hobetzeko prozesuak sendotzea.

2.4. helburua: Ebaluatzaileen bankua.

Agentziaren prestakuntza-politikari dagokionez, unibertsitate-arduradunei zuzendutako informazio/prestakuntza-saioak gauzatu dira garatu beharreko ebaluazio-prozesuen alde teknikoei buruz. Ebaluatzaileei dagokienez, ebaluazio-prozesu batean murgildu diren ebaluatzaile berri guztiek beharrezko prestakuntza jaso dute. Ikasleei dagokienez, ebaluatzaileak izateko hautagaiak bildu dira eta behar zenean batzordetan eta bisita-paneletan parte hartu dute, jardun hori gauzatzeko zegokien formakuntza jaso dute. Horrez gain, Agentziaren langileek prestakuntza ahalegin handia egin dute, bai beraien berriarazko jardunerako (ofimatikoa edo dokumentu-kudeatzaileak) bai jardunaren zeharkakoak (datu-babesa, kudeaketa prozesuka), baita ingelesez komunikatzeko gaitasunetan,

Bigarren helburua aldizkako koordinazio-bileren bidez, berriarazko lan-taldeen sorreraren bidez, langileen gogobete-maila aldizkako inkesten bidez neurtuz eta 2014an Enpresa Itun berria eginez gauzatu da.

Hirugarren helburuak 2014an zirriboratu zen gaitasunen bidezko kudeaketa sistemaren oinarritzko diseinua berraztertzea behar du.

Bukatzeko, ebaluatzaileen bankuak (aplikatibo informatikoa) bere berrikuntza eta hobekuntza prozesua burutu du, ebaluatzaileak biltzeko, kudeatzeko, prestatzeko eta onesteko prozedura argi definituta izanik.

○ **3. ardatza: Ebaluazioa**

3.1. helburua: Kalitatea Kudeatzeko Sistema Integralaren barruan neurriak eta prozedurak zehaztea, ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozesuak etengabe hobetzeko.

3.2. helburua: Goi-mailako hezkuntzan inplikaturako agenteekiko prospektiba eta hobekuntza bultzatzea, hezkuntza hobetzeko ebaluazio-programen bitartez.

3.3. helburua: Ebaluazioa garatzea, nazioartean onetsitako jarraibide eta estandarrei jarraiki.

3.4. helburua: Ebaluazio-prozesuen burokratizazioa arintzea.

Ardatz honen barruan, Agentziaren ebaluazio-prozesu guztiak burutzeko beharrezko jardun guztiak egin dira, KKBS-ren dagozkien prozeduretan irudikatuta. Ebaluazio-prozesu guztien emaitza zehatzak web orrialdean aurki daitezke, bai urteko jardunen memorian bai programa bakoitzari dagokion atalean:

- Irakasleak eta ikertzaileak ebaluatzen eta akreditatzeko
- EHUko kontratatutako irakasle eta ikertzaile egonkorak ebaluatzea ikerketa-osagarriak lortzeko (seiurtekoak)
- EHUko irakasleak eta ikertzaileak ebaluatzea, ordainsari-osagarriak lortzeko
- Titulazio ofizialak ebaluatzeneko programak
 - Baimentzea/Egiaztapena/Aldakuntza
 - Segimendua
 - Egiaztapena berritzea
- EHUko berezko tituluak ebaluatzeneko programa
- Erakundeak ebaluatzeneko programak
 - AUDIT
 - DOCENTIA
 - EUS-eko unibertsitateen kontratu-programak

Ebaluazio-programen hobekuntza eta hausnarketa bultzatzeko bilerak egin dira unibertsitateekin, ebaluazio-prozeduran murgilduta dauden pertsonen gogobetetze-inkestak egin zaizkie eta ebaluazio-prozesuen meta-ebaluazioa eginda. Nahiz eta, zentzu honetan ENQA-ren ebaluazioan gomendio bat egonik, ebaluazio-prozesuen diseinuan eta ebaluazioan interes-taldeen parte-hartzea areagotzeko hurrengo Plan Estrategikoan garatuko dena.

Zentzu honetan, nazioartean onetsitako jarraibide eta estandarrei jarraiki ebaluazioa garatzen jarraituko dugu eta ebaluazio-prozesuak 2015eko maiatzean Yerevan-en Europako Hezkuntza-ministroen Konferentzian onartutako GHEE-ean Kalitatea Bermatzeko Irizpideak eta Jarraibide berriei egokituko dira.

Ebaluazio-prozesuen burokratizazioa arintzen saiatzeari dagokionez, administrazio-elektronikoaren eta eskaeren izapidetze telematikoaren ezarpenarekin jarraitu da.

- **4. ardatza: Lankidetzak**

4.1. helburua: Goi-mailako Hezkuntza Sistemaren itxaropenak eta premiak betetzea.

4.2. helburua: Unibertsitateen eta gainerako agenteen artean jardunbide egokiak transmititzeko bitartekari izatea.

4.3. helburua: Goi-mailako Hezkuntzarako Europar Esparruaren eta beste esparru batzuen kalitatea bermatzeko sare eta agentziekiko harremanak areagotzea eta sendotzea

Lehenengo helburuaren proposamena hiru jardunetan garatu behar zen, horien artean burutu dena interes-taldeekin egindako bilerena izanik, jasotako iradokizunen azterketa eta arreta martxan jarriz. Oraindik egiteke dagoena, orokorrean prospektiba eta azterketak egitearena da, ez baitzegoen horretarako aurrekontu esleipen berezirik, aurrekontu bere horretan mantendu zelako eta aurreikusitako programa-kontratua ez zegoelako, hurrengo Plan Estrategikoaren barruan epe ertainean bere gauzatzea aurreikusten dela.

Praktika onen zabaltzea sinposio eta jardunaldien bidez egin da, unibertsitate, agentzia eta bete interes-taldeekin bilguneak izan direnak.

GHEE-aren, eta beste eremuen, kalitate bermerako sare eta agentziekiko harremanak sendotzeari dagokionez, jarduna nahiko nabarmena izan da azken bi urteetan. Estatu mailako kalitate agentzien REACU sareko egin diren bilerak guztietan parte hartu da eta 2015ean sarearen idazkaritza teknikoaren ardura hartu da. Horrez gain, goi-mailako hezkuntzaren kalitatea bultzatzeko esparruan zenbait lankidetzak eta kooperazio hitzarmen egin dira. Aurreko urteetan bezala, Espainiako unibertsitateen kalitatearen kanpo-ebaluazioaren egoerari buruzko txostena egiten parte hartu da, Espainiako ebaluazio-agentzia guztiekin batera. Gainera 2014an INQAAHE-ren eta ENQA-ren hainbat foro eta mintegitan parte hartu dugu, esate baterako, International Network for Quality Assurance Agencies in Higher Education edo INQAAHE sarearen 2014ko Foroan (“Goi-mailako hezkuntzaren kalitatea segurtatzeko lankidetzak”; Estonian, Tallinnen egin zen), Europako Irizpide eta Jarraibideak betetzeari buruz ENQA-k egindako mintegian, edota “Transparency of European Higher Education Through Public Quality Assurance Reports” EQAREP proiektuaren azken mintzaldian. 2015ean INQAAHE-k eta ENQA-k antolatutako ekitaldietan parte hartzen jarraitu dugu, esaterako Chicago-n egin zen INQAAHE sarearen 2015eko “Changing Landscape of Higher Education: New Demands On Quality Assurance” Hitzaldian eta Dublinen egin zen ENQA-ren Batzar Orokorrean. Beste alde batetik, “ECA training Assessing Joint Programmes” unibertsitateen arteko tituluak ebaluatzeko prestakuntza tailerra egin da eta ENQA-ren “ENQA workshop on QA and e-learning seminar” mintegira gerturatu gara. Bukatzeko, abenduaren hasieran La Haya-n izandako bileran ECA – European Consortium for Accreditation erakundearen kide diren agentziek ongiatorria eman diote Unibasq kide berria bezala, ECA-NVAO-k antolatutako “National Implementation of the European Approach for Quality Assurance of Joint Programmes” mintegiaren ondoren. Honek Agentziaren jardunen nazioartekotzea areagotuko du hurrengo urteetan.

○ **5. ardatza: Komunikazioa**

- 5.1. helburua: Erabiltzaileen premien berri izatea, premia horiek betetzeko.
- 5.2. helburua: Erabiltzaileei, prozesuei buruzko etengabeko informazioa bermatzea, fase guztietan.
- 5.3. helburua: Kalitate-arloan jardunbide egokiak hedatzeko plana egitea.
- 5.4. helburua: Web-orria mantentzea eta nazioarteko gardentasun-estandarretara egokitzea.
- 5.5. helburua: Irudi korporatiboa eta estiloa mantentzea agentziak ematen dituen dokumentu guztietan.
- 5.6. helburua: Aldian-aldean langileak koordinatzeko bilerak egitea.
- 5.7. helburua Agentziaren Zerbitzu Gutuna egitea eta argitaratzea.
- 5.8. helburua Interes-taldeak prestatzea Agentziaren eskumeneko eremuekin zerikusia duten gaietan.

Lehenengo helburuari dagokionez, atal honetan garatzeko proposatzen ziren jardunak betetatzat jotzen dira. Izan ere, unibertsitateekin egindako noiz behinkako bilerez gain, iradokizun, kexa eta hobekuntza proposamenen erregistroa sortu da, non jasotzen, erregistratzen eta kudeatzen diren.

Bigarren helburua administrazio elektronikoaren laguntzaz erraztu da. Era horretan erabiltzaileek espedienteak jarraitu ahal dituzte. Beste alde batetik, web orrialdean ebaluazio deialdien egoerari buruzko informazioa argitaratzen da.

Hirugarren helburuari dagokionez, erabiltzaileak laguntzeko gidak hobetu dira eta web orrialdearen bidez ebaluazio programen eta Agentziaren jardunen emaitzak ikus daitezke. Helburu hau oso lotuta dago laugarrenarekin, eskuragarri dagoen informazioa hobetuz. Dena den, aldizkako gaurkotzea behar duen

aldea da. Bosgarren helburua betetzat hartzen da Agentzian sortzen diren dokumentuek bere irudi korporatiboan aurreikusitako era jarraitzen baitute.

Seigarren eta zortzigarren helburuen betetze-maila lehenago justifikatu da.

Bukatzeko, 2013an egin zen Zerbitzu-karta eguneratu behar da Agentziak lortutako eskumen berriei leku egiteko.

○ **6. ardatza: Ikasleak**

6.1. helburua: Ikasleek agentziaren jardueretan parte hartzen dutela bermatzea.

6.2. helburua Ikasleek agentzien jardueretan parte har dezaten sustatzea, eta haien inplikazioa indartzea.

6.3. helburua: Ikasleen ordezkartza-organoekiko lankidetzak-mekanismoak ezartzea.

Ikasleei dagokien ardatza, guztiz garatu da azken urteotan Agentziaren organoetan eta jardunetan ikasleen parte-hartzea erraztuz 13/2012 Legean aurreikusitakoa betez. Beraien inplikazioa handitzeko, Ikasleen Aholku Batzordea sortu da 2015eko bukaeran martxan hasiko dena. Horrez gain, ikasleentzako zenbait formakuntza-jardunaldi egin dira eta CREUP elkartearen motatako elkarteekin komunikazioa mantendu da.

3. ONDORIOAK

2013-2016 aldirako plan estrategikoa eta planeko helburuak betetzeko egin diren jardunak aztertuz gero, Agentziaren egungo egoera zein den jakingo dugu. Unibasq-en historian izan den une garrantzitsuenetako bat Unibasq bera ENQA-ren (the European Association for Quality Assurance in Higher Education) eskubide osoko kide gisa onartu zutenean izan zen, halaxe gertatu baitzen nazioarteko erakunde horren zuzendaritza-kontseiluak 2014ko irailaren 15ean egindako bileran, eta EQAR (European Quality Assurance Register for Higher Education) erakundean sartu zutenean 2014ko azaroaren 29an, kanpo-ebaluazio bat gainditu ondoren GHEE-ean (ESG) Kalitatearen Bermerako Irizpide eta Jarraibideei dagokienez. Bi pauso horien bidez onespina ematen zaio unibertsitate-kalitatearen ebaluazio-jarduera burutzeko nazioartean onetsitako irizpideen arabera eta, hortaz, aurrerantzean, euskal unibertsitatean ematen diren titulazio berriak ez dituzte ebaluatu behar Euskaditik kanpoko instantziek, eta kontrastatutako nazioarteko ebaluazioak egin ahalko ditu Unibasq-ek estandar handienekin alderatuta.

Aurkeztutako txostenetik ondoriozta daitekeenez, 2013-2016 aldirako plan estrategikoa 2015era arte bete dela esan dezakegu eta, une honetan, beste plan estrategiko bat egin behar dela uste dugu, betiere Unibasq-en egoera berrira egokituta, jardun berriak garatzea bultzatzen duena.